



PRENTSA-OHARRA

Maximiliano, Ipuin kontalaria antzezlan, Haurrendako Euskarazko Antzerki Testuen sariduna 2017an, larunbatean estreinatuko da, Nafarroako Antzerki Eskolan

Emanaldia 18:30ean hasiko da, eta sarrerak sei euroan daude salgai, online eta NAEko leihatilan bertan, ikuskizuna hasi eta ordu eta erdi lehenagotik

Maximiliano, Ipuin kontalaria antzezlan estreinatuko da bihar, larunbatearekin, Nafarroako Antzerki Eskolan. 2017an Iruñeko Udalak eta NAEk antolatzen duten Haurrendako Euskarazko Antzerki Testuen lehiaketa *exaequo* irabazi zuen lanetako bat da. Emanaldia 18:30ean hasiko da, eta sarrerak 6 euroan eros daitezke jada NAEren webgunean (www.laescueladeteatro.com) eta Nafarroako Antzerki Eskolako leihatilan bertan, ikuskizuna hasi eta ordu eta erdi lehenagotik.

Maximiliano, Ipuin kontalaria Xabier Artiedak idatzi eta zuzendu du, eta Nafarroako Antzerki Eskolak ekoiztu. Argumentuak ipuinen ahalmen eraldatzailea du ardatz. Aitor, Oihane, Amets eta Nagore dira protagonistak, arratsaldero, ikastola amaitu eta gero, elkarrekin jolasean aritzeko biltzen den haur taldea. Baina egun horretan, Nagore opari berri batekin etorriko da: futbol pilota bat. Guztiak zein trebeak diren erakusteko irrikaz egongo dira, poz-pozik. Batez ere Aitor, zeinak baloiari kristoren ostikoa eman eta urrutira bidalita, tokiko haurren esanetan misteriotsua eta arriskutsua omen den agurearen leihotako bat puskatuko baitu. Lagun-taldeak barrura sartu beharko du baloia berreskuratzeko, eta baloiaz gain beste hainbat sorpresa aurkituko ditu bertan.

Iruñeko Udaleko Kultura eta Hezkuntzako Alorreko zuzendari Maitena Muruzabalek, testuaren egile eta antzezlanaren zuzendari Xabier Artiedak, ekoizpenaren koordinatzaile eta Nafarroako Antzerki Eskolako irakasle Maite Sagüések, eta antzezlaneko aktore Jaione Urtasunek estreinaldiaren berri eman dute gaur goizean. Gainera, eskola-kanpaina bat abiatuko da, antzezlanaren ekoizpenari eta estreinaldiari jarraipena emateko, apirilaren 23, 24 eta 25ean –hots, datorren astean–, Iruñeko Udalak eta Nafarroako Antzerki Eskolak elkarrekin antolatuta. Kanpaina horren barruan gehienez ere sei emanaldi eskainiko dira. Parte hartu nahi duten ikastetxeak garaiz dabilta oraindik izena emateko, Nafarroako Antzerki Eskolan bertan eta 948 229 239 telefonoan.

1. orrialdea, (e)tik 2



Aktoreak eta ibilbidea

Laura Villanueva, Guillermo López, Maitane Goñi, Jaione Urtasun eta Xabier Flamarique dira aktoreak. Luz y Fer eta Atornapión, hurrenez hurren, argiztapenaz eta eszenografiak arduratzen dira, eta María Sagüés eta Leire Mendizábal, jantziez.

Antzezlanaren egile eta zuzendari Xabier Artieda aktorea, dantzaria eta abeslaria da. Nafarroako Antzerki Eskolan jaso zuen prestakuntza (2006/2009), eta ondoren Mar Navarro eta Andrés Hernándezen Eskola Tekniko Fisikoan (2009/2011). Joven Compañía, Carmen Larraz, José Manuel Carrasco, Kon-moción Dance Company eta Alfredo Sanzolekin ere ikasi du. Aktore gisa Auzomotojori Teatro, Proyecto Craft, Malayerba, La Fura Dels Baus, EnBoca Teatro, Aran-aran Teatro eta Endeka Teatro konpainietan aritu da. Tempomobile konpainiako dantzari ere izan da, eta abeslaria Iruñeko Orfeoian eta Músicos cómicos callejeros taldean. ETBko *Goenkale* teleailean lan egin du.

Iruñean, 2018ko apirilaren 20an 2018

